



AGINDUA, HEZKUNTZA SAILBURUARENA, DANTZA IKASKETA PROFESIONALETAKO CURRÍCULUMA ETA IKASKETA HORIETAN SARTZEKO PROBAK EZARTZEN DITUEN DEKRETU-PROIEKTUA ALDEZ AURRETIK ONARTZEN DENA.

2024ko azaroaren 12ko Aginduaren bidez, Hezkuntzako sailburuak Dantza Ikasketa Profesionaletako curriculuma eta ikasketa horietan sartzeko probak ezartzen dituen Dekretu-proiektua egiteko prozedura hastea agindu zuen Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen (aurrerantzean, XOEPL) 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Dekretu-proiektuaren xedea da Dantza Ikasketa Profesionaletako curriculuma eta ikasketa horietan sartzeko probak ezartzea.

XOEPLk 15. artikuluan ezartzen denez, xedapen orokorren proiektuak idatzi ondoren, dagozkion negoziazio, entzunaldi eta kontsulta-izapideak egin aurretik prozedura hasteko agindua eman duen organoaren aldez aurreko onarpena beharko du.

Era berean, xedatzen du aldez aurreko onarpen-aginduak honela onartutako testu elebiduna erantsiko duela, bai eta artikulua horretan aipatutako eta espedientea berretsiko duten gainerako dokumentuak ere, hala nola: arau-eraginaren azterketa-memoria, eta, sailak egoki iritziz gero, txosten juridikoa eta memoria ekonomikoa.

Horregatik,

EBATZI DUT

LEHENA.- Aldez aurretik onartzea Dekretu-proiektua, Dantza Ikasketa Profesionaletako curriculuma eta ikasketa horietan sartzeko probak ezartzen dituen.

BIGARRENA. – Aginduzko eta bidezko izapideekin jarraitzeko agintzea, eta prozedura amaitzeko, Hezkuntzako sailburuak Agindua onar dezan.

HIRUGARRENA.- Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legea betez aldez aurretik onartutako dekretu-proiektuaren testua Eusko Legebiltzarrera bidaltzea.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean.

Maria Begoña Pedrosa Lobato

HEZKUNTZAKO SAILBURUA





ERANSKINA

XX/202X DEKRETUA, XXX XXkoa. Honen bidez ezartzen dira Dantza Ikasketa Profesionalak curriculumarekin eta ikasketa horietan sartzeko probak.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak ezartzen duenez, Ikasketa Profesional Artistikoen helburua da ikasleei kalitatezko prestakuntza artistikoa ematea; baita ere musika, dantza, arte dramatiko, arte plastiko eta diseinuko etorkizuneko profesionalen kualifikazioa bermatzea ere. Irakaskuntza artistikoa dira, besteak beste, Dantza Ikasketa Profesionalek. Legeak ezartzen duenez, ikasketa horiek, bata zein bestea, sei ikasturteko iraupeneko gradu profesionalean antolatu behar dira.

Bestalde, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 6.5 artikuluan, hezkuntzaren alorreko Administrazioek Lege horretan arautzen diren irakaskuntzen curriculumarekin ezarriko dutela eta Lege horretan aipatzen diren oinarriko alderdiak curriculumaren parte izango direla zehazten da.

Abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak (Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena) curriculumaren kontzeptuari buruzko aldaketak sartu ditu.

Uztailaren 9ko 898/2010 Errege Dekretuak, eta uztailaren 26ko 628/2022 Errege Dekretuak Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak arautzen dituen Dantza Ikasketa Profesionalak curriculumaren oinarriko alderdiak ezartzen dituen urtarrilaren 26ko 85/2007 Errege Dekretua aldatu dute.

Dantza Ikasketa Profesionalak curriculumarekin eta ikasketa horietan sartzeko probak ezartzen dituen abenduaren 26ko 252/2007 Dekretuaren xedea da Dantzako Ikasketa Profesionalarako Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 6. artikuluko 5. paragrafoan xedatutakoa garatzea eta irakaskuntza horien curriculumaren oinarriko alderdiak finkatzen dituen 2007ko urtarrilaren 26ko 85/2007 Errege Dekretuan ezarritakoa jasotzea.

Aipatutako araua onartu zenetik igarotako denborak antolaketa-egitura berri baten beharra ekarri du irakaskuntza horietan, bai eta irakaskuntza horien ordutegi-banaketan ere. Bestalde, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak eta urtarrilaren 26ko 85/2007 Errege Dekretuak izandako aldaketetara egokitu behar da; beraz, Dekretu berri bat egin behar da.

Horren guztiaren arabera, derrigorrezko txostenak egin ondoren eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorritik, Hezkuntzako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 202Xko XXren xan egindako bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren,

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Dekretuaren xedea.

Dekretu honek Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 6. artikuluko 5. paragrafoak Dantza Ikasketa Profesionalen inguruan ezarritakoaren garapena suposatzen du eta ikasketa horietako curriculumaren oinarriko alderdiak ezartzen dituen 2007ko urtarrilaren 26ko 85/2007 Errege Dekretuak ezartzen duena jasotzen du, eta azken horrek ondorengo hauek arautzen ditu, besteak beste:



- 1.– Dantza Ikasketa Profesionaletako curriculumua.
- 2.– Ikasketa horietara sartzeko bideak.
- 3.– Ebaluazio, promozio eta bertan jarraitzeko irizpideak.

2.artikulua.– Aplikazio esparrua.

Dekretu hau Euskal Autonomia Erkidegoko eskuduntza eremuan aplikatuko da.

3.artikulua.– Ikasketa hauen antolamendua.

Dantza Ikasketa Profesionalak sei mailako iraupena izango duen gradu batean antolatuko dira Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 48.2 artikuluan ezartzen denaren arabera.

4. artikulua.– Curriculumua.

Dekretu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, Dantza Ikasketa Profesionaletako curriculumua ikasketa horietako irakaskuntza arautu behar duten ebaluazio-irizpide, helburu eta eduki multzoa da.

5.artikulua.– Helburu orokorrak.

Dantza Ikasketa Profesionalen helburua ikasleen gaitasun orokorrak eta hezkuntza sistemak berezko dituen gizalegezko baloreak garatzea da, eta horiez gain, ondorengo gaitasun hauek garatzea ere bai:

- a) Dantza begiratzeko ohitura hartzea, dantzarekin lotutako adierazpen eszenikoetara joatea eta interpretatzeko irizpide propioak oinarritu eta garatzea ahalbidetzen duten kontzeptu estetikoak ezartzea.
- b) Sentsibilitate artistikoa eta irizpide estetikoa hezkuntza eta aberastasun pertsonalerako iturri gisa garatzea.
- c) Dantzaren kalitatea analizatu eta baloratzea.
- d) Dantzaren baloreak ezagutzea eta musikatik datozen eta garapen pertsonalerako ezin hobeak diren alderdiak aukeratzea.
- e) Dantzaren gozamina transmititzeko esperientzia bizitzea ahalbidetzen duten dantza eta kultura animazioko jardueretan parte hartzea.
- f) Dantzaren alorreko kontzeptu zientifikoei buruzko hiztegi espezifikoa zehaztasunez ezagutu eta erabiltzea.
- g) Dantza ondarea ondare historiko eta kultura ondarearen parte gisa ezagutu eta baloratzea.

6. artikulua.– Helburu zehatzak.

Dantza Ikasketa Profesionalek ikasleek ondorengo gaitasun hauek garatu ditzaten lagunduko dute:

- a) Mundu profesionalera sartzeko ahalbidetzen duten menperatze tekniko eta garapen artistikoa erakustea.
- b) Dantzarekin lotutako adierazpen eszenikoetara joateko ohitura hartzea bere dantzaren alorreko kultura osatzeko eta interpretatzeko irizpide propioak oinarritu eta garatzea ahalbidetzen duten kontzeptu estetikoak berriz ezartzea.
- c) Gorputza eta adimena menperatzeak teknika ziurtasunez erabiltzeko daukan garrantzia baloratzea, kalitatezko interpretazio artistikoa lortzeko beharrezkoa den kontzentrazioa lortzeko.
- d) Beharrezkoa den sentsibilitate musikalaren bitartez bere izaeran sakontzea, interpretazio adierazkorra lortzeko.
- e) Dantzaren kalitatea kritikoki analizatzea, berezko dituen baloreei dagokienez.



- f) Norbere bizipen eta esperientzietan curriculuma osatzen duten jakintzagai guztietan bereganatutako ezagutzen arteko harremanak ezartzea eta ezagutza horiek aplikatzea kalitatezko interpretazio artistikoa erdiesteko.
- g) Ezagutza historiko, estilistiko eta koreografikoak kalitatezko interpretazio artistiko bat lortzeko aplikatzea.
- h) Taldean taldeko kide gisa integratzeko edo taldeko arduradun gisa aritzeko beharrezkoa den gogoia izatea.
- i) Entzuleriaren aurrean autokontrola erakutsiz, oroimena menperatuz eta komunikatzeko gaitasunez jardutea.
- j) Sorkuntza koreografiko garaikidearen adierazpen ezaugarrien forma desberdinetara beharrezkoa den aldakortasunarekin egokitzea.
- k) Musikaren estiloa, forma eta izaeraren arabera inprobisatzea, baita proposamen desberdinetatik abiatuz ere, eta proposamen horiek ez dute zertan musikazkoak izan, entzunezkoak, plastikoak, poetikoak, etab. izan daitezke.
- l) Interpretazioan sor daitezkeen arazoak konpontzeko beharrezkoak diren erreflexuekin erantzutea.
- m) Bere burua, bere ezaugarri eta gaitasunen inguruko irudi egokia egitea eta ikasteko ohiturak hartzea, errendimendua erabilitako denboraren arabera baloratzea.
- n) Gorputzaren eta sentipenen gaineko ezagutzan sakontzea oreka eta ongizate psikofisiko egokia mantentzeko.

7.artikulua.– Espezialitateak.

Euskal Autonomia Erkidegoan Dantza Klasikoa espezialitatea eskainiko da.

8.artikulua.– Jakintzagaiak.

- 1.– Dantza Ikasketa Profesionaleko jakintzagaiak hiru motakoak dira: espezialitate guztietarako derrigorrezkoa eta komuna den bat, espezialitateko derrigorrezkoak eta hautazkoak.
- 2.– Espezialitate bakoitzari dagozkion jakintzagaiak, beren jakintzagaikako banaketa eta dagokion ordutegia Dekretu honetako I. eranskinean ezartzen dira. Ikastegiekin aukera izango dute ordu horiek asteka ez den moduan antolatzeko, betiere, urteko ordutegiari eusten baldin bazaio.
- 3.– Dantza Ikasketa Profesionaleko jakintzagaien edukiak, helburuak eta ebaluazio-irizpideak Dekretu honetako II. eranskinean ezarritakoak dira.

9.artikulua.– Espezialitate guztietarako derrigorrezkoa den jakintzagaia.

Espezialitate guztietarako derrigorrezkoa den jakintzagaia honako hau da: Musika.

10.artikulua.– Espezialitate bakoitzeko derrigorrezko jakintzagaiak.

Dantza Klasikoa espezialitatea:

Dantza Klasikoa.

Dantza Garaikidea.

Sorkuntza tailerra.

Errepertorioa.

Izaera dantza.

Dantzaren historia.



Binakako pausoa.

Dantzara eta Elikadurara Aplikatutako Anatomia.

11. artikulua.– Hautazko jakintzagaiak.

1.– Espezialitate berean profil aniztasuna sustatzeko, eta ikasleen interesak eta beharrak ere askotarikoak direnez, 5. eta 6. mailetan hautazko jakintzagaiak egongo dira.

2.– Ikastegiek hautazko jakintzagaien orduak asteka ez den moduan antolatzeke aukera izango dute, betiere, jakintzagaiaren eskolen ordu-kopuru osoa 5. eta 6. mailetan mantentzen baldin bada.

3.– Ikastegiek beren ikasleei eskaintzen dizkieten hautazko jakintzagaien artean, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastegi guztietan derrigorrez sartu beharko dira honako hauek:

Interpretazioa.

Euskal Dantza Tradizionala.

4.– Ikastegiek beste hautazko jakintzagai batzuk ere proposatu ahal izango dituzte, baina jakintzagai horiek Hezkuntza Sailak ezartzen dituen baldintza eta prozeduraren arabera onetsiak izan beharko dira.

5.– Hezkuntza Sailari aurkeztu beharko zaizkion agiriak ondorengo hauek izango dira:

- Jakintzagaiaren nomenklatura.
- Jakintzagaiaren deskripzioa eta justifikazioa.
- Jakintzagaiaren helburuak, edukiak eta ebaluazio- irizpideak.
- Prestakuntza bideekiko egokitzapena.
- Aldizkakotasuna.

6.– Jakintzagaia sortu berria baldin bada, jakintzagai hori emateko ardura duten irakasleen profila eta curriculum vitae ere aurkeztuko dira, profesional horiek jakintzagaia emateko ezagutza nahikoa daukatela justifikatzeko.

7.– Hautazko jakintzagai propio horiek baimenduak izateko, beharrezkoa izango da alde zurretik ikastegiko Pedagogia Batzordeak onestea.

8.– Hezkuntza Sailak beste hautazko jakintzagai batzuk (bai ikastegiek nahitaez eskaini beharrekoak, bai eskaintza librekoak) ezarri ahal izango ditu.

12. artikulua.– Lanbide-espezializazioko programak.

Dantza Ikasketa Profesionalerako 5. eta 6. mailetan hasitako prestakuntza prozesu espezifikoak garatu eta osatzeko asmoz, eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 45.2 artikulua ezarritakoaren arabera, Hezkuntza Sailak Dantza titulu profesionala atera osteko ikasketak arautuko ditu. Ikasketa horien izen generikoa eszena-prestaketara bideratutako lanbide-espezializazioko programak izango da.

13. artikulua.– Ikastegiko curriculum proiektua.

1.– Ikastegiek curriculum proiektuak landuz, Dantza Ikasketa Profesionalerako curriculum zehaztu eta osatuko dute.

2.– Curriculum proiektuak, orobat, helburuen, edukien eta ebaluazio-irizpideen ikasturtekako banaketa barne hartuko ditu, baita jakintzagai bakoitzaren programak ere. Banaketa hori ezin izango da aldatu ikasle talde berarentzako graduan zehar.

3.– Ikastegiaren curriculum proiektua ikastegi horretako irakaskuntza jardueraren programazioaren zati izango da, eta dagokion programazio orokorrari erantsiko zaio.



4.– Hezkuntza Sailak curriculumaren garapena erraztuko duten materialak prestatzea sustatuko du, eta irakasleen lana ildo horretatik bideratzeko xedapenak emango ditu; era berean, ekintza iraunkorreko planen bidez, irakasleak birziklatzea bultzatuko du.

14.artikulua.– Programazioak.

Irakasleek beren irakaskuntza lanaren programazioak garatuko dituzte, ikastegiaren curriculumarekin eta curriculum proiektuarekin bat etorrita.

15.artikulua.– Tutoretza eta orientazioa.

1.– Tutoretza eta orientazioa irakaskuntza lanaren zati dira, eta maila osoan zehar garatuko dira.

2.– Ikasle talde bateko tutorea den irakasleak bere gain izango du ebaluazioa eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak koordinatzeko erantzukizuna, eta horrez gain, ikasleen orientazio pertsonalaz ere arduratuko da.

3.– Tutoreak izendatzeko prozedura eta ikasleen banaketa tutoretza desberdinetan, ikastegi publikoei dagokienez, ikastegi bakoitzeko Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Arautegian ezarriko da, eta ikastegi pribatuei dagokienez, Barne Erregimeneko Arautegian ezarriko da.

16. artikulua.– Irakasleen eta ikasleen arteko zenbakizko erlazioa Dantza Ikasketa Profesionaletako jakintzagai guztietarako.

Martxoaren 15eko 303/2010 Errege Dekretuaren arabera, Dantzako Ikasketa Profesionaletan, irakasleen eta ikasleen arteko zenbakizko erlazioa gehienez ere 1/30ekoa izango da eskola teorikoetan, eta gehienez 1/15ekoa eskola praktikoetan. Nolanahi ere, ikasketa-plana arautzen duen araudian, hezkuntza-administrazioak talde murrizagoak zehaztu ahal izango ditu jakintzagai praktikoa jakin batzuk emateko.

17. artikulua.– Ebaluazioa.

1.– Dantza Ikasketa Profesionalen ebaluazioa gauzatzeko, hezkuntza-helburuak eta curriculumean ezarritako ebaluazio-irizpideak hartuko dira kontuan.

2.– Ikasleen ikaskuntzaren ebaluazioa jarraitua eta integratzailea izango da, baina curriculumeko jakintzagai bakoitzaren arabera bereiziko da.

3.– Ikaslearen irakasle taldeak egingo du ebaluazioa, irakasle tutorearen koordinaziopean. Irakasle horiek, beraz, era integratuan jokatu dute ebaluazio prozesuan eta prozesu horren ondoriozko erabakiak hartzerakoan.

4.– Irakasleek ondokoak ebaluatuko dituzte:

–Irakaskuntza prozesuak.

–Ikasleak ikasi duena.

–Irakaslearen jarduera.

5.– Curriculumak osatzen duten jakintzagai desberdinen azken ebaluazioaren emaitzak 1etik 10era bitarteko zenbakizko eskalan (hamartarik gabe) adieraziko dira. Bostetik gorako kalifikazioak positiboak izango dira, bost baino kalifikazio txikiagoak, aldiz, negatiboak izango dira. Honako korrespondentzia hauek aplikatuko dira:

Gutxiegia: 1,2,3,4

Nahikoa: 5

Ongi: 6

Oso ongi: 7,8

Bikain: 9,10



6.– Ikasketa profesionaleko seigarren mailan bederatzi puntu edo gehiagoko batez besteko nota lortu duten ikasleei «ohorezko matrikula» aipamena jarri ahal izango zaie espedientean eta historia akademikoan. Aipamen hori lortu dela jasoko da ebaluazio-dokumentuetan, eginbide espezifiko baten bidez.

7.– Ikasleen ebaluazioa eta azken kalifikazioa ekainean egingo dira.

8.– Ekainean ebaluazio negatiboa jaso duten ikasleek bigarren deialdia izango dute. Ikasleak gainditu gabeko jakintzagai bat baino gehiago baldin badauka, probak dagozkion irakasleen aurrean egin beharko ditu, eta ondoren, bere irakasle taldeak egingo du ebaluazioa, irakasle tutoreak koordinatuta, ikaslea hurrengo mailara igaroko den ala ez zehazteko.

18. artikulua.– Bertan geratzea eta kurtso gainditzea.

1.– Dantza Ikasketa Profesionalean zortzi urtez geratu daiteke gehienez ere. Ezin izango da kurtso berean bi urte baino gehiago egon, 6. kurtsoan izan ezik.

2.– Salbuespen gisa, Hezkuntza Sailak horretarako jarritako baldintzak betetz, urtebetez luza daiteke iraupena kurtso bakoitzean; betiere, ikasleak ikasketen garapenari enbarazu handia egin dion gaixotasunen bat edo antzeko arrazoiren bat jasan baldin badu.

3.– Ikasleak egin dituzten jakintzagaiak gainditzeko dituztenean edo ebaluazio negatiboa gehienez bi jakintzagaian daukatenean igaroko dira hurrengo kurtsoa. Dantza praktiken inguruko gainditu gabeko jakintzagairen bat baldin badaukate, jakintzagaia erreperazioa hurrengo urteko kurtsoan egin beharko dute jakintzagaia kurtso horren parte baldin bada. Gainontzeko kasuetan, ikasleak aurreko ikasturtean gainditu ez dituzten eskoletara joan beharko dute.

4.– Kurtso batean edo kurtso bat baino gehiagotan hiru jakintzagai edo gehiagotan kalifikazio negatiboa izanez gero, ikasleak ezin izango du hurrengo kurtsoa igaro.

Dantza klasikoa jakintzagaia ez gainditzeak hurrengo ikasturtera igarotzea eragotziko du kasu guztietan.

5.– Azken ikasturtea, 6.a alegia, bukatutakoan hiru jakintzagai edo gehiagotan ebaluazio positiboa lortzeke daukaten ikasleak ikasturte osoa errepikatu beharko dute. Kalifikazio negatiboa jakintzagai bat edo bitan izanez gero, gainditzeke geratu diren jakintzagaiak soilik errepikatu beharko dira.

19. artikulua.– Titulazioa.

1.– Dantza Ikasketa Profesionalak amaitu ondoren, bertan finkatutako helburuak lortu dituzten ikasleek titulu profesionala jasotzeko eskubidea izango dute, eta tituluan, burutu duten espezialitatea adieraziko da.

2.– Horrez gain, Dantzak Ikasketa Profesionalak amaitzen dituzten ikasleak Batxilergoko titulua lortu ahal izango dute Arteen modalitatean, maiatzaren 5eko 76/2023 Dekretuan, Batxilergoaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoan, ezarritako baldintzetan.

20. artikulua.– Hezkuntza-laguntza berariaz behar duten ikasleak.

1.– Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan, azaroaren 29koa, ezartzen diren xedapenen esparruan, sortzen diren ikastegi berriek irisgarritasuna sustatzeko eremuan indarrean dauden xedapenak bete beharko dituzte. Gainontzeko ikastegiei Lege horretara egokitu beharko dute bertan ezartzen diren epeen barruan eta bertan ezartzen diren irizpideen arabera.

2.– Hezkuntza-premia bereziak daukaten ikasleak ikasketa hauetako curriculumera sartzea ekainaren 18ko 78/2024 Dekretuak, (hezkuntza-sistema inklusibo baten esparruan aniztasunari erantzuteko, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleentzat) ezartzen denaren arabera sartuko dira.

21. artikulua.– Jakintzagaiak ematea.



1.– Derrigorrezko jakintzagaiak eman behar dituzten irakasleek, hezkuntza administrazioaren menpe dauden ikastegietan, 428/2013 Errege Dekretua, ekainaren 14koa, Musika eta Dantzako irakaskuntzei lotutako Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen Kidegoko irakaskuntza-espezialitateak ezartzen dituenak ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte; gainontzeko ikastegietan, berriz, 303/2010 Errege Dekretua, martxoaren 15ekoa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan araututako irakaskuntza artistikoak ematen dituzten ikastetxeen gutxieneko baldintzak ezartzen dituenak bete beharko dituzte, baita horren osteko arauak ere.

2.– Errege Dekretu horietan sartzan ez diren jakintzagaien kasuetan, aldiz, Hezkuntza Sailak ezarriko ditu horietako bakoitzari dagozkion betebeharrak. Nolanahi ere, irakasleek ikasketa horiek emateko eskatzen den titulazio generikoa edo irakaskuntzarako baliokidea dena eduki beharko dute.

22. artikulua.– Dantza Ikasketa Profesioaletara sartzeko bideak.

1.– Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 49. artikulua araber, Dantza Ikasketa Profesioaletara sartzeko, beharrezkoa izango da sarrera-proba espezifikoko bat gainditzea. Proba horren bitartez, ikasleak Ikasketa Profesionalak aprobetxamenduz egiteko dauzkan heldutasun, gaitasun eta ezagutzak baloratuko dira, Dekretu honetan ezartzen diren helburuen arabera.

2.– Hezkuntza Sailak, ikasturtea hasi baino lehen, urtero egingo du sarrera proba egiteko deialdia. Proben deialdia gutxienez probak egin baino bi hilabete lehenago egin beharko da, eta Dantza Eskoletako iragarki-tauletan eta Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetan emango da deialdiaren berri. Halaber, probaren edukia garatuko du, ebaluazio-irizpideak eta proba gauzatzeko prozedurak ezarriko ditu, baita horretarako Epaimahaia osatu eta izendatu ere. Kurtsoetarikoren batean plaza libreraren bat baldin bada, sartzeko proba espezifikokoak irailean egingo dira.

3.– Dantza Ikasketa Profesioaletako Dantza Klasikoa espezialitatera sartzeko proba espezifikoa publikoa izango da eta ondoren adierazten den bezala, lau zati bereizi izango ditu:

a) Barra osatzen duten ariketa guztiak gauzatzea, gehienez berrogeita bost minutukoa izango da, eta ikastegiko irakasleek zuzendu eta lagunduko dute.

b) Ikastegian bariazio desberdinak egitea, gehienez berrogeita bost minutukoa izango da, eta ikastegiko irakasleek zuzendu eta lagunduko dute.

c) Inprobisazio bat, irakasleak hautagaiari alde aurretik musika zati bat ezagutzera emango dio, eta hautagaiak inprobisatu egin beharko du. Zatiak gehienez hiru minutu iraungo du.

d) Proba musikal bat, hautagai bakoitzaren gaitasun musikalak baloratzeko (gaitasun erritmikoa eta entzumen aktiboa).

4.– Lortutako behin betiko puntuazioa 0tik 10era bitarteko zenbakizko kalifikazioaz adieraziko da, gehienez hamartar batekin, eta beharrezkoa izango da 5 puntu lortzea proba gainditzeko.

5.– Epaimahaiak ikaslearen maila lehenengo kurtsoa sartzeko modukoa baino altuagoa dela irizten baldin bada, ikaslea zuzenean bigarren kurtsoa sartzeko erabakia hartu ahalko du, kurtso horretan plazaren bat geratzen baldin bada.

6.– Halaber, Dantzako Ikasketa Profesioaletako kurtso guztietara aurreko kurtsoak egin gabe ere sartzeko aukera egongo da, baina horretarako, proba bat gainditu beharko da, eta bertan, proba egiten duen pertsonak dagozkion ikasketak aprobetxamenduz gauzatzeko beharrezkoak diren ezagutzak dauzkala erakutsi beharko du.

7.– Proba horiek Hezkuntza Sailak antolatuko ditu, hark arautuko du proben edukia, hark ezarriko ditu proben ebaluazio-irizpideak, baita horiek gauzatzeko prozedurak ere, eta horrez gain, horretarako epaimahaiaren osaketa eta izendapenaz ere arduratuko da.

8.– Deialdiko plazak esleituko dira ikastegi bakoitzean proba gainditu dutenek jasotako puntuazio orokorraren arabera, puntuaziorik altuenetik baxuenera.

23. artikulua.– Kurtso bat baino gehiagotan matrikulatzea.



Hezkuntza Sailak ezarriko ditu espezialitateko kurtso bat baino gehiagotan matrikulatzeko baldintzak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da, 252/2007 Dekretua, abenduaren 26koa, Dantza Ikasketa Profesionaletako curriculum eta ikasketa horietarako sarbidea ezartzen dituen.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Ikasketak Bigarren Hezkuntzakoekin batera egitea.

Dantza Ikasketa Profesionak eta Bigarren Hezkuntzako ikasketak aldi berean egiteko aukera erraztuko da. Horretarako neurriak Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-agintaritzaren araudiaren bidez ezartzen dira.

Bigarrena.– Hezkuntza Sailaren Kontserbatorioetako plantillak.

Hautazko jakintzagaiak ezartzeak ez du irakaskuntzako plantillak areagotzea ekarriko Hezkuntza Sailaren menpe dauden Kontserbatorioetan.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Aplikazio egutegia.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak ezartzen duen hezkuntza sistemako antolamendu berria aplikatzeko egutegia ezartzen duen ekainaren 30eko 806/2006 Errege Dekretua aplikatuz, Dekretu honek, 2025-2026 ikasturtean.

Bigarrena.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu osteko egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 20XXko XXren XXan.

Lehendakaria,

IMANOL PRADALES GIL

Hezkuntza sailburua,

MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO

I. ERANSKINA

xx xxKO xx/202x DEKRETUARENA

DANTZA IKASKETA PROFESIONALEI DAGOZKIEN JAKINTZAGAIEN ORDUEN BANAKETA
KURTSO ETA ASTEAREN ARABERA



Jakintzagaia	1º	2º	3º	4º	5º	6º	Total
Musika	1	1	1	1	0,5	0,5	150
Dantza Klasikoa	12	12	12	12	10	10	2.040
Dantza Garaikidea	1	1	2,5	2,5	4	4	450
Sorkuntza tailerra	1	1	1	1	2	2	240
Errepertorioa	-	-	1,5	1,5	5	5	390
Izaera dantza	1	1	-	-	-	-	60
Dantzaren historia	-	-	1	1	-	-	60
Binakako pausoa	-	-	-	-	1	1	60
Dantzara eta Elikadurara Aplikaturako Anatomia	-	-	1	1	-	-	60
Hautazkoak:							
Interpretazioa	-	-	-	-	1	1	60
Euskal Dantza Tradizionala	-	-	-	-	1	1	60

II. ERANSKINA

xxAREB XXKO XX/202X DEKRETUARENA

DANTZA IKASKETA PROFESIONALETAKO JAKINTZAGAIEN HELBURUAK, EDUKIAK ETA EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Musika

1.– Helburuak:



Dantza Ikasketa Profesionaletan «Musika» jakintzagaia irakastearen helburua ikasleengan honako gaitasun hauek garatzen laguntzea izango da:

- a) Bere ideia eta sentipenak ahotsa eta instrumentuak erabiliz, originaltasunez adieraztea interpretazio eta inprobisazio egoeretan, bere komunikatzeko aukerak aberasteko, eta adierazteko beste moduak errespetatzea.
- b) Ahozko adierazpena baloratzea (hitz eginezkoa eta abestuz) komunikazio eta ideia eta sentimenduak adierazteko iturri gisa.
- c) Musikaren gaineko ezagutza eta diskurtso musikalaren osaketa arautzen duten arau orokorren gaineko ezagutzaren inguruko interesa izatea, baita haren sormen prozesuaren gainekoa ere.
- d) Garai eta estilo desberdinetako musikaren ezaugarri, aukera eta adierazteko baliabideak ezagutzea, errepertorioko edozein lan nahiz musika lan baten gainean inprobisatzean kalitatez interpretatzea lortzeko.
- e) Beste kultura batzuetako musikazko adierazpenak baloratu eta errespetatzea.
- f) Isiltasunak musika existitzeko alde aurretiko baldintza gisa, baita norberarekiko zein besteekiko harremanetan harmonia elementu gisa daukan garrantzia baloratzea, eta soinua bereizkuntzarik egin gabe erabiltzeak eragiten duen oldarraz konturatzea.

2.– Edukiak:

Ahotsa eta hitza musikazko adierazpen bide gisa. Ahozko inprobisazioak: banakakoak eta taldekoak, libreak eta zuzenduak, melodiarekin eta gabe. Ahozko errepertorioaren praktika. Erritmoa, melodia, harmonia eta forma musikaren elementu gisa. Pultsua, azentua eta esaldien ekoizpena, musika-hizkuntzako elementu gisa. Errepikapena, imitazioa, bariazioa, garapena eta inprobisazioa konposizio prozedura gisa. Gorputz perkusioa eta eskolako instrumentuak erabiltzea mugimendua eta dantza laguntzeko. Musikaren Historiako aldi garrantzitsuak: formak eta estiloak. Estilo aniztasuna musika garaikidean. Beste kultura batzuetako musika. Musika eta ikus-entzunezko baliabideak.

3.– Ebaluazio-irizpideak.

- 1) Kantu kolektiboko jardueretan esku hartzea adierazpena eta intonazioa taldearen soinu mailara egokituz. Irizpide honen helburua ikasleek kantu kolektiboko egoeretan eskuhartze aktiboa daukaten ebaluatzea da, baita ikaslea kantu jardueretara zein jarrerarekin hurbiltzen den ebaluatzea ere, eta ahozko intonazioa eta adierazpena taldearen soinu mailara egokitzeko nahia behatuko da.
- 2) Eskema erritmiko-melodikoen jarduera esparrua errespetatzea (8 eta 16 pulsu bitarteko iraupena eta eskala naturalaren esparruan) inprobisazio egoeretan. Irizpide honen helburua ikasleak proposatu den eredu erritmiko-melodikoko jarduera esparrua errespetatzeko daukan abilezia egiaztatzea da, inprobisazioan erraztasun eta naturaltasunez esku hartzeko daukan gaitasuna, ideia originalak ematen dituen eta esku-hartzea zailago bilakatzen denean isiltzen dakien behatuko da.
- 3) Musika irakurtzea taldeko musika jardueren testuinguruan interpretazio eta entzumen lanei laguntzeko. Irizpide honek musika-irakurketaren erabilpen funtzionala ebaluatzen du. Helburua ez da ikuspuntu solfistikoa batetik ebaluatzea, ikasleak irakurketan nolako trebeziarekin moldatzen den ikustea baizik, taldearen musika jardueretan aurrera egiteko partituran bermatzeko beharra sortu ondoren.
- 4) Entzundako musika lanekin lotutako iritzi pertsonalak besteei aditzera emateko musikaren alorreko terminologia egokia erabiltzea. Irizpide honen bitartez musika epaitzean musika-hizkuntza egokia erabiltzeko gaitasuna ebaluatzen da, izan ere, «musikaz hitz egiten» jakiteak musikaren alorreko oinarriko kontzeptu eta printzipio batzuk bereganatzea esan nahi du.
- 5) Taldeko interpretazio jardueretan parte hartzea eta musikaren beharrezko ondorioz beharrezkoak diren zeregin trukaketak onartzea. Irizpide honen bitartez, musika egoera batek eskatzen duen edozein zeregin onartzeko orduan, ikasleak daukan mugikortasuna ebaluatzen da. Edozein



instrumentutik aritzeak, kantatzen, zuzendari gisa, bakarlari gisa, etab. taldeko interpretazioan sarritan ikusten diren jardunbide estereotipatuak gainditu direla esan nahiko du.

6) Inprobisaziorako beste eremu artistiko batzuetatik ateratako ideiak musikaren bitartez adieraztea ahalbidetzen dituzten jarraibide batzuk ezartzea. Irizpide honen helburua ikasleak beste eremu artistiko batzuetan adierazitako ideiak musikaren bitartez transmititzeko gai diren ikustea da. Hortaz, horren euskarri den egituraren analisia barne hartzen da, gero horiekin jardutea ahalbidetzen duten konbentzionalismo musikalak ezartzeko.

Dantza Klasikoa

1.– Helburuak:

Dantza Ikasketa Profesionalean «Dantza Klasikoa» jakintzagaia irakastearen helburua ikasleengan honako gaitasun hauek garatzen laguntzea izango da:

- a) Koordinazioa menperatzea eta mugimendu guztiak gauzatzea ahalbidetzen duen gorputzaren kokapen egokia kontrolatzea.
- b) Dantza osatzen duten mugimendu guztiak musikaltasunez gauzatzea.
- c) Dantza Klasikoko ezagutza tekniko eta estilistikoak erabiltzen jakitea, interpretazio artistikoan mailarik altuena lortzeko behar den mugimendu kalitatea lortzeko.
- d) Espazioak elementu estetiko zein formal gisa daukan garrantzia baloratzea, eta interpretazioan daukan paperaz jabetzea.

2. – Edukiak:

Dantza Klasikoko hiztegia osatzen duten pauso guztiak ezagutzea, eta horiek behar bezala egokitzea beren musika-denbora, azentu eta mugimendu-koordinazioaren arabera. Oroimena lantzeko ariketa iraunkor eta progresiboa. Gorputzaren, dinamikaren, mugimenduaren erasoaren eta arnasketaren gaineko kontrola garatzea. Pausu guztiak zehaztasunez eta modu definituan gauzatzea beren norabide eta toki-aldaketekin. Espazioa behar bezala erabiltzea. Musika barneratzea sentsibiltate artistikoa dantzarako beharrezkoa den dotoretasun eta energiarekin garatzeko. Sentsibiltate musikala garatzea mugimenduaren kalitate ona lortzeko ezinbesteko premisa gisa. Punta eskola: punta erdiko zapatilen gaineko pausu guztiak ikastea, eta nesken kasuan, puntazko zapatilen gainekoak. Mutilentzako eskola: espezifikoki «gizonezkoentzako pauso» gisa adierazten diren pauso guztiak ikastea. Bira eta saltoaren perfektionamendu tekniko eta interpretazioa garatzea. Sormen gaitasunak garatzea.

3. – Ebaluazio-irizpideak:

- 1) Dantza Klasikoko hiztegiko pauso guztiak jakin eta ezagutzea eta beren aplikazio teknikoak ulertzea. Ebaluazio-irizpide honen helburua ikasleak pauso guztien izena, nola gauzatzen diren, beren ezaugarriak eta Dantzan daukaten esanahi teknikoak ikasi dituela egiaz- tatzea da.
- 2) Unean-unean irakasleak adierazten dituen ballet- barrako ariketak gauzatzea, dagokion mailako musikaz- ko akonpainamenduarekin. Irizpide honekin, ikaslearen gaitasun fisikoen heldutasun maila, Dantza Klasikoko teknika menperatzeko beharrezkoa dena, egiazta- tu nahi da.
- 3) Ikastegian irakasleak unean-unean adierazten duen adagio ariketa bat gauzatzea. Ebaluazio-irizpide honekin beren gaitasun teknikoak egiaztatu nahi da, orekaren sentimena, hanken altxatzea eta zabaltasuna, gorputzak espazioan posizioetan daukan definizioa eta zehaztasuna, koordinazioa, besoen eta buruaren mugimendua eta kokapenari dagokienez. Horrez gain ikaslearen musikaltasuna, adierazkortasuna, komunikazioa eta pertsonalitate artistikoaren heldutasuna behatuko da.
- 4) Ikastegian irakasleak unean-unean adierazten duen bira ariketa bi gauzatzea. Irizpide honekin ikasleak birak emateko teknika menperatzea, koordinazioa eta espazioan mugitzeko sentimena lortu



dituela egiaztatu nahi da, baita pausoen eta pauso-artearen garbitasuna, definizioa eta zehaztasuna ere.

5) Ikastegian irakasleak unean-unean adierazten duen salto txikiko ariketa bi gauzatzea. Ebaluazio-irizpide honen bitartez, ikasleak saltoa gauzatzean lortu duen maila teknikoa egiaztatu nahi da, baita bere hanken malgutasuna eta indarra, «Plié»aren lana (malgutasuna, jaitsierako eustea eta bultzada), koordinazioa, azentu musikalak eta muskularrak, aldaken altxatzea eta soinaren eustea ere.

6) Ikastegian irakasleak unean-unean adierazten duen bateria ariketa bat gauzatzea. Ebaluazio-irizpide honen bitartez, bateria txikiaren teknikan bereganatutako menderakuntza eta exekuzio maila egiaztatu nahi da, bateriarako «en dehors»ean garapen fisiko eta muskularra behatuko dira, baita hanka eta oinen mugimenduen garbitasun, definizio eta zehaztasuna, saltoen koordinazioa eta azentu musikalak eta muskularrak ere.

7) Ikastegian irakasleak unean-unean adierazten duen salto handiko zenbait ariketa gauzatzea. Ebaluazio-irizpide honen bitartez, mugimendu gaitasunaren garapen maximoa, zabalera maximoa erabiliz salto egiteko muskulu-lanak sortzen duen energia, gorputzak airean daukan zehaztasuna eta kokapena, beso eta hankek koordinazioa eta bultzada, hanka, beso, soin eta musikaren sinkronizazioa egiaztatu nahi dira.

8) Ikastegian irakasleak unean-unean adierazten duen espezifikoki gizonezkoentzako diren zenbait ariketa gauzatzea. Ebaluazio-irizpide honekin, gizonezkoak diren ikasleek Dantza Klasikoan espezifikoki gizonezkoena den teknika menperatzen duten egiaztatu nahi da.

9) Ikastegian irakasleak unean-unean adierazten duen espezifikoki emakumezkoentzako diren puntazko zenbait ariketa gauzatzea. Ebaluazio-irizpide honekin, emakumezkoak diren ikasleek puntuen teknikan lortu duten maila teknikoa egiaztatu nahi da.

10) Pianistak lehenago joko duen musika zati batetik abiatuz inprobisazio ariketa bat egitea. Ebaluazio-irizpide honekin, musika entzutean musikak eragiten dituen irudiak eta sentipenak mugimenduekin irudikatzen jakiteko ikasleak daukan heldutasun maila egiaztatzen da, eta horrez gain, bere sormen zentzua, sentsibilitatea eta musikaltasuna egiaztatzen dira.

Horrez gain, ebaluazio-irizpide guztiekin egiaztatuko da gaitasun artistikoa, sentsibilitatea, musikaltasuna eta adierazpen komunikazioa.

Dantza Garaikidea

1.– Helburuak.

Dantza Ikasketa Profesionalean «Dantza Garaikidea» jakintzagaia irakastearen helburua ikasleengan honako gaitasun hauek garatzen laguntzea izango da:

- a) Dantza Garaikideko mugimenduak ezagutu eta praktikatzea, baita beren kalitate eta ñabardura desberdinak ere, exekuzio tekniko eta artistiko egokia lortzeko.
- b) Estilo desberdinetako aldaerak interpretatzea, Dantza Garaikidearen formen aniztasuna ezagutzeko.
- c) Dantza forma librearen inprobisatzea sormen sentsibilitatearekin eta zentzu koreografikoarekin.
- d) Dantza Garaikidearen diziplina arteko izaeratik eratortzen diren eskakizunetara egokitze beharrezkoa den aldakortasuna erakustea.

2. – Edukiak:

Ariketak lurzoruan: gorputzaren zati desberdinen sentipenak eta indarra bereiztea. Soina uzkuertzeko eta bizkarrezurraren mugikortasunaren inguruko lanak. Arnasketa mugimenduaren jatorri gisa erabiltzea. Ariketak zentroan: gorputzaren ardatza aldatzea, pauso desberdinetan oreka bilatzen. Gorputzaren zati guztien koordinazioa. Espazioa behar bezala erabiltzea. Sentsibilitate plastikoa



garatzea. Inprobisazio askea praktikatzea, objektuekin eta gabe, banaka eta taldean. Aldaera txikiak ikastea. Errepertorioko koreografo garaikideen aldaerak ikastea.

3. – Ebaluazio-irizpideak:

- 1) Banaka bariazio aske bat inprobisatzea, musika estilo desberdinetatik abiatuz. Ebaluazio-irizpide honen bitartez, banakako inprobisazioarekin, ikaslearen sormen-garapena, adierazpen artistikoa eta musika-sentsibiltatea egiaztatu nahi dira.
- 2) Taldean bariazio aske bat inprobisatzea, musika estilo desberdinetatik abiatuz. Ebaluazio-irizpide honen bitartez, ikaslearen sormen-garapena, adierazpen artistikoa eta musika-sentsibiltatea egiaztatu nahi dira, baita ikasleak taldearen inprobisazioan integrazteko daukan gaitasuna ere.
- 3) Errepertorioko koreografo garaikideen aldaerak interpretatzea. Irizpide honen bitartez, ikaslearen interpretatzeko gaitasuna baloratu nahi da, baita proposatutako aldaerarekiko identifikazioa ere.

Sorkuntza tailerra

1.- Helburuak:

Ikasleengan gaitasun hauek garatzen laguntzea:

- 1) Sorkuntzaren eta ikus-entzunezko beste arte eta teknika batzuen arteko diziplinartekotasuna aztertzea.
- 2) Eskuratutako teknika aplikatzea eta ezagutza historikoak, estilistikoak, koreografikoak, eszenoteknikoak, espazialak eta musikalak integratzea, kalitatezko interpretazio artistikoa lortzeko.
- 3) Ikuskizun koreografikoen eszenifikazioan eta pertzepzioan eragina duten espazio eta denbora-interpretazioko faktoreak ezagutzea.
- 4) Talde batean beste kide bat bezala edo multzoaren arduradun gisa integratzen jakitea.
- 5) Sorkuntza-konposizioak egitea eta exekutzea.
- 6) Koreografia-sorkuntzako obraren egilearen esparru juridikoa eta jarduera-esparrua ezagutzea.
- 7) Dantza-teknika aktore-teknikarekin integratuta duten sorkuntza-lanak egitea.

2.- Edukiak:

Obra bat ezaugarritzen eta definitzen duten elementuak aztertzea. Koreografia baten elementuak identifikatzea eta deskribatzea. Sorkuntza-prozesuko faseak aztertzea. Konposizio eta sorkuntza-tresnak ezagutzea eta aplikatzea. Gorputz eta keinu-hizkuntza aztertzea. Ikus-entzunezko oinarrizko teknikak aztertzea. Garai, estilo, joera eta autoretza desberdinetako koreografien laburpenak aztertzea eta interpretatzea. Konposizio koreografikoak egitea eta gauzatzea. Musika eta mugimendua barneratzea interpretazio koreografikoaren berezko sentsibiltate artistikoa garatzeko. Sormen-gaitasunak garatzea. Egiletzaren arloan indarrean dagoen legeria aztertzea.

3.- Ebaluazio-irizpideak:

- 1.- Konposizio koreografiko txikiak egitea. Irizpide honen helburua da ikasleek osotasun koherente eta orekatua sortzeko eta osatzeko duten gaitasuna baloratzea, ikasitako elementuak antolatuz.
- 2.- Ikasleek sortutako sekuentzia koreografikoak gainerako interpreteei transferitzea. Irizpide honen bidez, ikasleek beren ideiak eta emozioak transmititzeko duten komunikazio-gaitasuna baloratu nahi da.



3.- Aurretik ikasleei transferitu zaizkien sekuentzia koreografikoak interpretatzea. Irizpide honen bidez, ikasleek aldeztatik transmititu zaizkien material koreografikoak zehaztasunez eta zorrotztasunez itzultzeko duten gaitasuna baloratuko da.

4.- Ikasleek ikasitako ikus-entzunezko teknikaren bat edo teknika artistikoren bat barneratuko duten sorkuntza txiki bat erakustea. Irizpide honen bidez egiaztatu nahi da ikasleek konposizio koreografikoaren eta ikus-entzunezko beste arte eta baliabide batzuen arteko erlazioa barneratu dutela.

5.- Konposizio koreografiko propioa interpretatzea, publikoari zuzendua, aurretik beste dantzari batzuekin entseatuta. Irizpide honen bidez, ikasleek interprete gisa eta talde bateko kide gisa duten eginkizuna onartzeko duten gaitasuna baloratzen da, bai eta taldearen batasunean duten erantzukizuna eta interprete bakoitzaren zereginaren egokitzapena ere, beren sentimenduak eta nortasuna arinduz eta publikoarekiko lotura emozionala lortuz.

6.- Aktoreen interpretazio-teknikak ezartzea eta horiek dantzan txertatzea. Irizpide honen bidez, ikasleek beren dantza-lanean interpretazio-teknikak txertatzeko eta dantzaren eta aktorearen teknika bateratzeko duten gaitasuna egiaztatu nahi da.

7.- Koreografia bat eraikitzean eta eszenaratzean beharrezkoa den arintasuna eta egokitzeko gaitasuna erakustea. Irizpide honen bidez baloratu nahi da urratsak eta estiloak jasotzeko prestasuna eta gaitasuna, espaziora eta agintzen zaion paperera egokitzeko gaitasuna, eta esku hartzen duen obren ezaugarriei musikaltasunez, erritmoz eta dinamikaz erantzuteko gaitasuna.

Errepertorioa.

1.– Helburuak:

Dantza Ikasketa Profesionalean «Errepertorioa» jakintzagaia irakastearen helburua ikasleengan honako gaitasun hauek garatzen laguntzea izango da:

- a) Dantza Klasiko edo Dantza Neoklasikoko errepertorioko lanak edo zatiak interpretatzea, menderakuntza teknikoaren naturaltasunarekin eta obraren estiloaren garbitasunarekin.
- b) Dantzak taldean, bakarlari paperak eta ballet osoak interpretatzea.
- c) Garai eta joera artistiko desberdinetako ballet garrantzitsuenak ezagutu eta bereiztea, estilo eta ñabarduren aniztasunean sakonduz.
- d) Balletetako baldintza historikoak eta ezagutzak bere interpretazio estilo eta formarekin lotzea.

2.– Edukiak:

Garai eta joera artistiko desberdinetako errepertorioko lanak ikastea, eta estiloen aniztasunean sakontzea. Balleten ezagutza tekniko eta historikoak bereganatzea dantzan interpretazio egokia egiteko. Pertsonaia bakoitzaren izaeraren analisia, interpretazio dramatiko zuzena egiteko. Paper desberdinen interpretazioa ikastea, hautatutako obrak eskatzen dituen estilo eta formen barruan. Indibidualtasun artistikoa eta birtuosismo teknikoa garatzea. Taldeko dantzak praktikatu eta interpretatzea. Erdi-bakarlari eta lehenengo dantzari aldaerak praktikatu eta interpretatzea. Taldean dantza egiteko arauak ezagutu eta baloratzea. Oroimena lantzeko ariketa iraunkor eta progresiboa.

3.– Ebaluazio-irizpideak:

- 1) Ikastegian ikuslegoari zuzendutako koreografia lanak interpretatzea, entseatu ondoren. Irizpide honen bitartez, dantzariak dantza taldean daukan gaitasun diziplinatua, eman zaion papera onartzeko daukan gaitasuna, taldearen batasunean daukan erantzukizuna eta bere sentipenak eta izaera ateratzen eta ikuslegoarekin konexio emozionala lortuz, egokitu zaion paperarekiko egokitzapena baloratu nahi da.



- 2) Dantzari bakarlariaren errepertorioko paper bat interpretatzea. Irizpide honekin, ikaslearen maila teknikoa eta interpretatzeko gaitasuna baloratu nahi dira, hautatutako aldaeraren estiloa eta izaera asimilatuz.
- 3) Dantzari nagusiaren errepertorioko paper bat interpretatzea. Irizpide honen bitartez, ikaslearen birtuosismo maila baloratu nahi da, interpretazioaren dohain naturala eta sentsibilitate artistikoarekin batera.
- 4) Ikasleek hautatutako errepertorioko karaktereko paper bat interpretatzea, eta bertan, ikasleek bilatuko dituzte ñabardura desberdinak, baita alderdi historikoak aztertu ere. Irizpide honen bitartez, ikasleak behaketa eta analisirako daukan prestakuntza egiaztatu nahi da, baita bere kezkek, sentsibilitatea, sormena eta estetikaren zentzua ere.
- 5) Ikusleagoaren aurrean errepertorio klasikoko taldeko dantza bat interpretatzea. Ebaluazio-irizpide honen helburua ikaslea dantzaz gozatzeko eta taldeko gainontzeko kideekin interpretazio harreman berezi bat mantentzeko gai den ikustea da.

Izaera Dantza

1. Helburuak:

Izaera Dantzan adierazpen mugimenduaren kalitatea lortzea.

Oinak eta soina oinarri tekniko zuzena ahalbidetzeko moduan kokatzea.

Barrako ariketak modu zuzenean egitea, baita zentroan horien aplikazioa ere.

Izaera dantzaren alorrak berezko duen hizkerako terminologia ezagutzea, baita eskualde eta herrialdearen arabera, bere pauso, konbinazio edo dantzen aplikazio deskriptiboa ere.

Izaera Dantzaren jantzi eta arropen garrantzia ezagutzea.

Jakintzagai honetan ikasleen indibidualtasuna eta birtuosismoa garatzea.

2.- Edukiak:

Barran eta zentroan Izaera dantzako ariketa espezifikoak ezagutzea.

Ondorengo dantza herrikoi hauetariko batzuk ikasiko dira: Dantza errusiarra, moldaviarra, bielorrusiarra, poloniarra eta hungariarra, bulgariarra, ukrainiarra, eskoziarra, georgiarra, latinoamerikarra, venezuelarra etab.

Ondorengo dantza eszenikoak ikasiko dira: Dantza poloniarra, hungariarra, italiarra eta espainiarra eta beste batzuk.

Opera eta antzerkiko errepertorioko balletetako zatiak ikastea.

Bikoteko dantza ikastea, bikoteetan dantza egitean ikasleen arteko harremanak eta koordinazioa lortzeko lan egitea.

3.- Ebaluazio-irizpideak:

1.– Dantzetatik ikasitako oinarrizko pausoak jakin eta ezagutzea eta horien hiztegi teknikoa ulertzea. Ebaluazioirizpide honen helburua ikasleak dantzetako pausoak praktikoki ikasi dituela, pausoen izena dakiela eta dantzan daukaten esanahi teknikoa ikasi duela egiaztatzea da.

2.– Irakasleak unean-unean markatzen dituen ariketak gauzatzea, dantzetarako exijitzen den musika denbora erabiliz. Irizpide honen bitartez, dantza zehatzetan aurkitzen diren mugimenduak behar bezala ikasi direla egiaztatu nahi da.

3.– Irakaslearen argibideei jarraituz, dantza nazionala eta dantza herrikoiaren adierazkortasuna, izaera eta teknika garatzen doazen ariketa eta pausoak gauzatzea. Irizpide honen bitartez, Izaera



dantzan pauso eta mugimendu guztiak dantza herrikoi eta izaera dantza zehatz hori hobeto ulertzeko egiten direla egiaztatu nahi da.

4.– Dantza herrikoia eta dantza eszenikoa bereizten jakitea. Ballet klasikoaren parte diren dantza eszenikoak zehaztuz musika erritmoetan sartzea. Irizpide honen bitartez, dantzaren estetikarako beharrezkoak diren ezaugarriak behatu nahi dira, esaterako garapen fisikoa, pertsonalitatea, musikaltasuna, harmonia, mugimenduaren izaera eta dotorezia eta ikuslegoarekiko komunikazioa.

5.– Aurretik ikasitako dantzetariko bat erreproduzitu eta interpretatzea, bakarrik, bikotean ala taldean. Irizpide honen bitartez, mugimenduko sentsibiltate musikala, adierazpen artistikoa eta interpretazioa egiaztatu nahi dira.

Dantzaren historia.

1.- Helburuak:

Dantzaren errepresentazioak beren testuinguru historikoan ulertzeko beharrezkoak diren erreferentziak ematea.

Dantza dantzak Arte Eszeniko gisa eboluzionatu duen toki eta garaien perspektiba kulturalen kokatzea.

Euskal dantza tradizionala ezagutu eta baloratzea, baita aldameneko erkidegoetakoa ere, eta Espainiako kultura arteko panoramaren barruan daukan kokapena ezagutzea.

Joera koreografikorik garrantzitsuenak eta beren lanik adierazgarrienak ezagutu eta baloratzea.

Teknikaren bilakaera ezagutzea.

Dantzaren garapenean aipatutako koreografo, interprete eta irudien banakako ekarpena baloratzea.

Egungo Dantzaren mundu profesionala lan munduan sartzea eta bokazioa gauzatzea errazten duen informatutako ikuspuntu batetik ezagutzea.

Dantzak gainontzeko arteekin (Arkitektura, Eskultura, Pintura, Musika eta Literatura) dauzkan loturak ezagutu eta baloratzea, baita lexikoan daukan eragina eta kode koreografikoak ere.

2.- Edukiak:

Dantza banakoaren eta taldearen baloreak, ideiak eta sentipenak komunikatzeko bide gisa. Antzerki dantza formak beste kultura eta garai batzuetan, eta beste toki geografiko batzuetan. Dantza tradizionala eta Euskadiko herriaren kulturari egin dion ekarpena.

Europako kulturaren dantzaren antzerki izaera bereganatzea.

Frantziako gorteko estilo, modal eta janzkera Errenazimendutik aurrera.

Kode geografikoen formalizazio prozesua eta lehenengo Dantza Akademiaren sorkuntza. Antzerkiko aurrerakuntza teknikoa, Erromantizismoko joera estetiko eta musikalak eta horien isla dantzan. Dantza Klasikoaren garai garrantzitsuak eta bere garapena Errusia Inperialean.

Eragin modernoak eta berritzaileen ekarpena antzerki dantzaren esparruan.

Eraginen fusioa konpainia handietan eta horien ibilbidea XX. mendean zehar.

Azken panorama.

Ballet handien analisia, ikasleek Errepertorio eskoletan dantzatutako obrekin zuzenean lotua, Kontserbatorioa edo tailerraren antzezpenak, eta ikus ditzaketen Dantza Konpainien antzezpenekin.

Antzerki dantzaren historiako lan eta joera esanguratsuak ikasiko dira, horren garapeneko pertsonaia garrantzitsuen biografien bitartez:



Gaiak teorikoki aurkeztuko dira jatorri desberdinetako testen bitartez, gaztelaniaz eta ingelesez, eta zenbait grabazio ikusiko dira bideo eta DVD formatuetan.

3.- Ebaluazio-irizpideak:

1) Herri eta kultura guztietan, eta zehazki, mendebaldeko munduan Dantzak eboluzionatu duen testuinguru historiko eta kulturalak ezagutu eta bereiztea.

Irizpide honen bitartez, ikasleak Dantzaren ezaugarri izan diren kontzeptuen bilakaeraren inguruan lortu duen ulermen maila egiaztatu nahi da.

2) Dantzaren Historiaren garapenean garrantzitsuak izan diren pertsonen (dantzariak, koreografoak eta sustatzaileak) ekarpenak ezartzea.

Irizpide honekin, ikasleak Dantzaren garapenean eragin garrantzitsua izan duten sortzaile eta interpreteen lana identifikatu eta baloratzeko daukan gaitasuna egiaztatzen da.

3) Dantzaren Historian sortu diren estilo eta teknika desberdinak eta hiztegia identifikatu eta baloratzea, baita horiek lehenagoko garaiekin daukaten harremana eta geroko aldietan izan duten eragina ere.

Irizpide honen helburua ikasleak Dantzaren hizkuntza osatzen duten teknika eta estiloen gainean daukan ulermen maila egiaztatzea da.

Binakako Pausoa.

1.- Helburuak:

«Binakako Pausoa» jakintzagaiaren helburua ikasleen garapen artistiko osoari laguntzea izango da, eta ondorengo gaitasunak sustatuko ditu:

Ikasleari Binakako Pausoko segida koreografikoak gauzatzea ahalbidetzen dioten euskarri, gorputz-erreferentzia eta eusteko moduak ezagutzea.

Binakako pausoko elementuak norbere segurtasuna eta bikotearena behar bezala zainduz.

Binakako pausoa bikotean elkar ulertzearen arintasuna emateko beharrezkoak diren erritmo eta ahalegina ezartzea.

Errepertorioko bikote klasikoko dantza behar beza- lako estilo eta kalitate teknikoarekin interpretatzea.

2.- Edukiak:

Orekak.

«Tours de promenade». Lurreko eta aireko «eustea».

Salto eutsiak eta toki-aldaketazkoak.

«En l'air» posizioetara igotzea. Birak.

3.- Ebaluazio-irizpideak:

Unean-unean irakasleak maila horretan markatzen dituen ariketak egitea.

Irizpide honen bitartez, Binakako Pausoarekin lotutako hizkuntza tekniko eta prozeduren gaineko ulermen maila egiaztatu nahi da.

Bikote klasikoko adagio ariketa bat egitea eta ariketak elementu tekniko eta artistikoen elementuen sekuentziak izatea.

Irizpide honen bitartez, ikasleek orekak, «tours de promenades»ak, lurreko «eustea» eta birak nola menderatzen dituzten ikusi nahi da.

Binakako Pausoko ariketak egitea musika tempo desberdinetan.



Irizpide honen bitartez, ikasleek Binakako Pausoko elementu koreografikoak bikotearen artean behar bezalako antzezpen-komunikazioarekin gauzatzeko gaitasuna daukaten egiaztatu nahi da.

Errepertorio klasikoko Binakako Pausuko lan bat interpretatzea.

Irizpide honekin, ikasleak Binakako Pausua kalitate tekniko eta estilo egokiarekin gauzatu eta interpretatzeko gai direla ikusiko da.

Anatomia, elikadura eta dantza.

1.- Helburuak:

- a) Dantzak berezko dituen ezaugarri biomenkanikoak eta dantza praktikatzeko beharrezkoak diren ezau- garri fisikoak ezagutzea, baita dantzak organismoko zenbait funtzioaren eta gorputzeko eremu desberdinen gainean daukan exijentzia fisiko maila ere, eta zehazki, dantzari gazteen muskulu-eskeleto sistemaren gainean daukana.
- b) Ikasleek giza gorputzaren anatomiaren gaineko ezagutza egokia izatea; norbere gorputzaren osaketa, antolaketa eta funtzionamenduaren inguruko jakintza egokia izateko oinarriak emango zaizkie, eta arreta berezia jarriko da jarrerak sortzeko eta mugimenduaren erantzule den aparatu lokomotorearen funtsezko ele- mentuetan.
- c) Teknikaren garapen egokiena lortzeko beharrez- koak diren ezagutza biomekaniko eta anatomikoakematea, jarrera akatsak eta/edo dantzarekin lotutako lesioak ekiditeko neurri gisa.
- d) Gizakiaren organismoko sistema eta aparatu desberdinen antolamendua eta funtzionamendua azaltzea, gorputza adierazpen artistikorako bide gisa hobeto era- biltzera bideratuta, eta arreta berezia jartzea jarrerak eta mugimenduak sortu eta mantentzeko beharrezkoa den muskulu-uzkurdura prozesuan eta nerbio sistemaren kontrolari arreta berezian.
- e) Elikadurak daukan garrantzia maila guztietan baloratzea eta dantzariak elikaduraren alorrean eta elikadura eta osasuna eta errendimendu fisiko edota kirol errendimenduaren arteko harremanaren gainean beharrezkoak dituen ezagutzak bereganatzea; elikadura egoki baten eta dantzariak behar bezala hidratatuta egotearen funtsezko oinarriak ulertzea, dantzari gazteen hazkuntza, garapen prozesu normalerako eta dantzak eskatzen duen energia eta elikadurari behar bezala erantzuteko oinarritzko elikadura beharrak baloratzea; eta elikagaien talde nagusiak bereiztea eta elikagai desberdinen edukia ezagutzea.
- f) Ohitura osasungarriak ikasi eta ezartzea sustatu eta laguntzea, baita bizimodu aktiboagoen alde egitea ere, etorkizuneko artisten osasuna hobetzeko, eta ondorioz, beren helduaroan gaixotasunak eta/edo zailtasun medikuak prebenitzea, baita giza gorputzak eskaintzen dituen aukerak ahal bezain ongi aprobetxatzea ere, erren- dimendu fisiko eta artistikoa hobetzeko helburuarekin, eta ondorioz, dantzarekin lotutako lesioak izateko arriskua murriztuko dute.
- g) Dantzaren alorrean sarrien jasaten diren lesioak ezagutzea, baita beren produkzio mekanismoak ere, dantzariak lesioak jasateko arriskua murrizteko kontuan hartu beharreko babesteko eta prebenitzeko neurriak zehaztea; dantzaren alorrean bereziki interesgarriak diren alderdi medikuak ezagutzera ematea, gorputz osaketa eta pisuaren kontrola, elikadura gabezien prebentzioa eta/edo elikadura nahasketak barne, besteak beste.

2.- Edukiak:

Dantzaren mugimendua eta jarreraren analisi biomekanikoa: Jarrera on bat mantentzeko gomendio praktikoak. Aparatu lokomotorearen biomekanika eta orokor- tasunak: Hezurra organo gisa, eskeletoa osoki eta hezurak egitura gisa; artikulazioak eta lotailuak; muskulu-tendoi konplexu funtzionala eta indarrak transmiti- tzeke mekanismoa.

Giza gorputzaren deskripzio orokorra: azterketa anatomikoa gorputzaren zati eta segmentuka. Goiko muturraren, enborraren eta beheko muturraren anatomia eta funtzioa.



Dantzarako beharrezkoak diren baldintzak eta ezaugarri fisikoak; baldintza biomekaniko partikularrak; hautaketa naturalaren prozesua. Dantzako jarrera eta posizioetan esku hartzen duten muskulu nagusiak eta egoera articularra ikastea. Dantzarako bereziki interesgarriak diren alderdi anatomikoak.

Elikadurak maila guztietan daukan garrantzia eta giza organismoaren elikadura beharrak. Elikagaien osagaiak: elikagai mota desberdinak; elikagaien osagai energetikoak; elikagaien osagai ez-energetikoak, erregulatzailer metabolikoak; bitaminak eta mineralak. Dantzarien oreka hidroeletrolitiko eta hidratazio egoera.

Elikagai desberdinen ekarpen erlatiboa eta garrantzia orokorrean ariketa fisikorako, eta zehazki, dantzarako beharrezkoa den energia produzitzeko.

Elikadura eta osasuna: elikadura osasungarria eta orekatua. Elikadura egokia, bai kopuruari dagokionez, bai kalitateari dagokionez: oreka energetikoa eta aniztasuna dietan. Elikagai talde nagusiak. Elikadura osasungarri eta orekatuaren piramidea.

Hazkuntza eta garapenaren prozesua: elikadurarekin eta dantza praktikatzearekin daukan harremana. Oinarrizko elikadura-beharrak eta berezitasunak hezkuntza eta garapen bizkorreneko aldietan (hautzaroa eta nerabezaroa). Elikadurarekin lotutako akatsik ohikoenak eta horiek nola prebenitu.

Dantzari gazteen jokabidea eta ohiturak elikaduraren inguruan: elikadurarekin lotutako hezkuntza goiz ematearen garrantzia. Gehiegi elikatzearen ondoriozko arazoak: gehiegizko pisua eta gizentasun epidemia geure haur eta gazteen artea; hori prebenitu edo/eta zuzen- tzeko neurririk egokienak. Dantzariak sarri izan ohi dituzten elikadura gabeziak; dantzariak elikaduraren inguruan izaten dituzten jokabide nahasketak: elikadura nahasteak.

Dantzaren exigentzia fisiko, metaboliko eta fisiologikoak. Dantza jarduera fisiko gisa. Egoera fisikoa eta horrek dantzan daukan garrantzia. Dantzarien profil antropometrikoa: dantzarien gorputz-osaketa. Dantza erregulartasunez praktikatzearen ondorioak.

Kontrol medikuaren interesa eta beharra dantzan. Hazkuntza eta garapen prozesua, heldutasun biologiko egoera eta dantza praktikatzea. Dantzarako bereziki interesgarriak diren alderdi medikuak: gazte kirolarien «hirukoa»; hilekoaren irregulartasunak, elikadura nahasteak, horrek osteoporosi goiztiarrarekin daukan lotura eta ikuspuntu medikutik dauzkan ondorioak.

Dantzak berezko duen lesio-arriskuaren profila. Dantza praktikatzearekin lotutako lesiorik ohikoenak eta exigentzia mailaren arabera.

Arrisku faktoreen analisi eta identifikazioa: dantzariaren arabekoak diren faktoreak, dantzaren eskakizun berezien arabekoak diren faktoreak, ingurugiroarekin lotutako faktoreak eta oinetako motarekin eta praktika egiten den azalerarekin lotutako beste faktore batzuk. Dantzan aplikatu behar diren prebentzio neurri nagusiak: jarduera baino lehen, jarduerak diharduen bitartean eta jardueraren ostean. Dantzariak egoera fisikoa mantentzea, gorputzaren pisuaren gaineko kontrol egokia eta teknika zuzena ikastearen garrantzia.

3.- Ebaluazio-irizpideak:

Jarrerren biomekanikari eta mugimenduari buruzko funtsezko ezagutzak eskuratzea dantza praktikatzeko bitartean; giza gorputzaren anatomia behar bezala ezagutzea, bereziki, aparatu lokomotoraren oinarrizko elementuei dagokienez, jarrerren sortzaile eta mugimenduaren arduradun gisa.

Giza gorputza ongi koordinatutako funtzio osagarri desberdinez osatutako makina konplexu gisa ulertzea, «motor» bat edo sistema lokomotoraren (muskulaturaren) elementu aktibo bat barne daukala, palanka sistema baten gainean (eskeletoa) ekiten duela ikustea, eta zuzenean nerbio sistemaren kontrolpean (mugimenduaren kontrol nerbioa) dagoela eta norbere gorputza adierazpen artistikorako bide gisa erabiltzera bideratuta dagoela ikustea, eta bere erantzunak eta dantzaren praktikako egokitzapenak ezagutzea.



Elikadura jokabide egokia eta ohitura dietetiko osasungarriak sustatzea dantzari gazteen artean, beren helduaroko osasunaren egoeran faktore erabakigarria dela eta dantzariaren errendimendu fisiko eta mentalerako funtsezko osagaia dela ikustea, eta horren ondorioz, etorkizuneko artisten osasuna hobetzea eta giza gorputzaren gaitasun potentzialak ahal beste aprobetxatzea ahalbidetzea, errendimendu fisiko eta artistiko hobetzeko, eta dantzaren praktikarekin lotutako lesioak eta/edo zailtasun medikuak izateko arriskua murriztea.

Anatomia, fisiologia, elikadura eta dantzaren medikuntzaren alorretan ematen diren ezagutzak aplikazio praktikora bideratzea higiene pertsonala eta gorputzaren zaintzari, egoera fisikoari, dantzari gazteen elikatzeo ohitura eta jokabideei dagokienez.

Interpretazioa.

1.- Helburuak:

Aktore teknika batzuk ikastearen bitartez, dantzaren alorreko etorkizuneko profesionalen interpretazio kalitatea hobetzea.

Ikasleari prestakuntza maila altua eskaintzea ondorengo alor hauetan: mugimendu eszenikoak, keinuen adierazpena, mimika, antzeppen analisia, akzio eszenikoak, entseguaren teknika, pertsonaiaren eraikuntza, karakterizazioa, ikuslegoaren edo kameraren aurrean lan dramatikoak gauzatzea.

Aktore teknika erabiltzen jakitea obraren estiloaren eta egiten duen paperaren barruan, emozioak adierazi eta transmititu ahal izateko.

Espazio-denbora harremana antzerkiaren ikuspuntutik baloratzea.

Dantzaren teknika aktore teknikarekin integratuta daukaten koreografia lanak egitea.

2.- Edukiak:

Interpretazioaren Maisu Handien ikasketa teorikoak.

Ikaslea aktorearen lanbidearen alderdirik funtsezkoenetik alderdirik konplexuenera daramaten ariketak: banakako eta taldeko ariketak egitea: desinhibitzeo ariketak, kontzentrazio ariketak, arretazkoak, lana objektuekin, ekintza-eraginezkoak, inprobisaziozkoak, behatzekoak, energia aktibatu eta kontrolatzekoak, lana testuarekin, etab.

Zati dramatikoaren entseguak. Ondoren aipatzen diren gaietarako DVDak ikustea: zinema eta telebistako interpretazioa, bideo-dantza, clown, mimo, maskara, casting teknikak, etab.

3.- Ebaluazio-irizpideak:

Antzerki muntaia bat, irakurketa dramatizazioa edo ariketa laginak antzeztea. Irizpide honen bitartez, ikasle bakoitzaren prestakuntza maila zehaztu nahi da antzeppeneko adierazgarritasuna, sakontasun energetikoa, askatasuna, izaera, eraldatzeko gaitasuna, testuen interpretazioa, humorea, lanaren aurreko jarrera, inplikazio pertsonaleko maila, autokontrola eta diziplina, partenerarekin lana, analisia egiteko gaitasuna eta original- tasunari dagokienez.

Aktoreen interpretazio teknikak ezartzea eta Dantzan sartzea. Irizpide honen bitartez, ikasleak antzezteko teknikak dantzari lanean integratzeko, eta dantzaren teknika eta aktoreena bateratzeko gaitasuna egiaztatzea nahi da.

Euskal Dantza Tradizionala

1.- Helburuak:



Dantza tradizional mota desberdinak ezagutu eta interpretatzea, horiek teknikoki mantentzera iritsi arte.

Bai taldeko dantzak, bai bakarkakoak interpretatzen jakitea.

Dantzarik esanguratsuenak ezagutu eta bereiztea, estilo eta ñabarduren aniztasunean sakonduz.

Dantza tradizionalen baldintza sozial, historiko, koreografiko eta musikalak eta ezagutzak lotzea.

2.- Edukiak:

Pausoak, koreografiak, jantziak, historia, inguru geografikoa eta sozio-kulturala, tresnak, sinbolismoa, motak edo tokiko aldaerak eta ondorengo dantza zikloen nomenklatura:

Soka dantza lauziak/Muxikoak Mutil Dantzak Paloteao-ak Dantzari Dantza Brokel Dantza

Inauterietako Dantzak Fandango/Jota, Arin-arin/Porrue Ebaluazio-irizpideak:

1.– Ikasleak proposatutako ziklo guztietako dantzak interpretatzen jakitea.

2.– Ikasleak dantza tradizional desberdinak bereizten jakitea eta beren ezaugarriak eta baldintza sozial, historiko, koreografiko eta musikalak analizatzea.

3.– Ikaslea koreografia bat sortzeko gai izatea dantza tradizionaleko pausoak eta egiturak proposatutako melodia batean erabiliz.

4.– Ikaslea edukietan azantzen den dantza baten edo dantza talde baten inguruan, jantzia, historia, ingurua, mota, estilo desberdinak, tresnak, etab. barne hartzen dituen aurkezpen teoriko bat garatzeko gai izatea.